

J7 Jarduera.

Hondarren analisi grafikoa.

Pilar González eta Susan Orbe

Ekonomia Aplikatua III (Ekonometria eta Estatistika) Saila

Proposatutako ereduak.

1. eguzkitakoak.gdt.

$$A_t = \beta_1 + \beta_2 P_t + \beta_3 T_t + \beta_4 H_t + \beta_5 \text{time} + u_t \quad (1)$$

2. matrikulazioak.gdt.

$$MATEAE_t = \beta_1 + \beta_2 P_t + \beta_3 IPIEAEUA_t + \beta_4 \text{time}_t + u_t \quad (2)$$

3. soldatak.gdt.

$$\text{soldata}_i = \beta_1 + \beta_2 \text{hezk}_i + \beta_3 \text{esper}_i + \beta_4 \text{antzinatasuna}_i + \beta_5 \text{emakumea}_i + u_i \quad (3)$$

4. NekaturBizkaia.gdt.

$$PR_i = \beta_1 + \beta_2 L_i + \beta_3 GP_i + u_i \quad (4)$$

Hondarren analisi grafikoa.

Hondarren analisi deskriptiboa.

Estima itzazu proposatutako lau ereduak KTA metodoa erabiliz. Ondoren, eredu bakoitzarentzat:

- a. Gorde ezazu hondarren seriea.
- b. Lor itzazu hondarren estatistiko nagusiak.
- c. Lor ezazu hondarren kaixa-grafikoa.
- d. Estima ezazu hondarren dentsitate-funtzioa. Dentsitate-funtzioa estimatzeko behaketa nahikorik ez balego, lor ezazu maiztasunen banaketa.

Autokorrelazioa.

- e. Interpreta itzazu emaitzak.
- f. Har ezazu kontuan (1) eta (2) eredueta estimazio-emaitzak:
 - f.a. Adierazi itzazu grafikoki hondarrak denboran zehar.
 - f.b. Interpreta itzazu emaitzak. Perturbazioek autokorrelazioa dutelako susmorik dago? Zergatik?

Heterozedastizitatea.

- g. Har ezazu kontuan (3) ereduko estimazio-emaitzak:
 - g.a. Adierazi itzazu grafikoki hondarrak behaketen zehar.
 - g.b. Adierazi itzazu grafikoki hondarrak hezkuntza aldagaiarekiko.
 - g.c. Adierazi itzazu grafikoki hondarrak esperientzia aldagaiarekiko.
 - g.d. Adierazi itzazu grafikoki hondarrak aintzintasuna aldagaiarekiko.
 - g.e. Interpreta itzazu emaitzak. Perturbazioek heterozedastizitatea dutelako susmorik dago? Zergatik?

Heterozedastizitatea.

h. Har ezazu kontuan (4) ereduko estimazio-emaitzak:

h.a. Adierazi itzazu grafikoki hondarrak behaketen zehar.

h.b. Adierazi itzazu grafikoki hondarrak GP aldagaiarekiko.

h.c. Adierazi itzazu grafikoki hondarrak L aldagaiarekiko.

h.d. Perturbazioek heterozedastizitatea dutelako susmorik dago? Zergatik?